



## OINETAKOAK – Oinarrizko maila

### Prozedura irekiaren bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

## 1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

### 1.1. Kontratuaren xedea

#### 1. Koadroa

Kontratu honen xedea da ingurumen-kalitateari dagokionez gutxieneko irizpideak betetzen dituzten ehun-produktuak erostea.

### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

#### 2. Koadroa

Balioetsiko da, eskaintzen den produktuan, Oeko-Tex 100<sup>1</sup> ziurtagirian azken produktuko substantziei buruzko eskakizunak betetzen dituzten zuntzen %, pisuan.

#### 3. Koadroa

Balioetsiko da eskainitako produktuaren zuntzen edo elementu birziklatuen portzentajea pisuan. Ekoizpen-hondarretatik, ehungintzatik, jantzigintzako ebakinetatik eta kontsumitu ondorengo ehun-hondakinetatik eratorriak dira zuntz birziklatuak.

Balioetsiko da nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europako Batasuneko 2092/91 zk.-dun EEE araudia (2008ko abenduaren 31 arte) eta 834/2007 zk.-dun EEE araudia (2009ko urtarrilaren 1etik aurrera), AEBko Nekazaritza Saila-USDArenak (National Organic Program-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.

<sup>1</sup> [https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications\\_and\\_services/ots\\_100/ots\\_100\\_start.xhtml](https://www.oeko-tex.com/en/business/certifications_and_services/ots_100/ots_100_start.xhtml)

#### 4. Koadroa

- Oinetakoen ehun-osagaietako **formaldehido** libre eta zati batean hidrolizagarriaren kantitateak ez du izan behar 75 ppm baino handiagoa, eta, larruzko osagaietan, ez du du 150 ppm baino handiagoa izan behar, CEN TC 309 WI 065-4.4 metodoaren edo pareko baten arabera.
- Oinetakoak ez du **PVCrik** izan behar.

#### 5. Koadroa

- Laneko eta segurtasuneko oinetakoek UNE EN 345 arauak edo arau baliokideak bete behar dituzte, norbera babesteko ekipoei dagokienez. [Segurtasun-ekipoetarako oinetakoak dituzten jantzien eskaintzetan]

#### 6. Koadroa

- Hurrengo balioak errespetatuko dira:
  - **Oinbularraren** urraketarekiko erresistentzia (EN 13571 edo antzekoaren arabera):  
Larrua:  $\geq 40$   
Beste zenbait material:  $\geq 40$
  - **Zolaren** urraketarekiko erresistentzia (EN 12771 edo antzekoaren arabera):  
D = 0,9 g/cm<sup>3</sup>: 6  
D = 0,9 g/cm<sup>3</sup>: 4

##### 1.2.1. Ingurumen-irizpide orokorrak zerbitzuari dagokionez

#### 7. Koadroa

- Produktuak banatzean, eskaintzaileak bere gain hartu behar du garraio-bilgarrien kudeaketa, bai zuzenean berrerabiltzeko, bai gaikako bilketa egiteko.
- Eskuekin erraz bereizteko modukoak izan behar dute bilgarriek, birziklapena errazteko.

## 2. Esleipen irizpideak

Esleipen-irizpideetan, elementu baloragarri bakoitzari ezarriko zaion haztapena zehaztu behar da. Ingurumen-irizpideak erabiliz erositako oinetakoetan, alderdi hauek balora daitezke, besteak beste:

### 8. Koadroa

- **Produktuen ingurumen-alderdiak eta alderdi teknikoak, % 20raino.**
  - Azken produktuko substantziei buruzko irizpideak betetzen dituzten zuntzen %, Oeko-Tex 100 estandarraren arabera.
  - Zuntz edo elementu birziklatuen edo nekazaritza ekologikotik datozen zuntz edo elementuen %, %10eraino.

Produktu ezberdin bat baino gehiago erosiz gero, produktu bakoitzari ezarri behar zaizkio balorazio-irizpideak (kopurua kontuan hartuta, ez kantitatea) eta produktu ezberdinen guztizkoari egokitu, edo, bestela, produktu guztien guztizkoari (pisua) ezarri, hau da, produktu bakoitzaren kopuruari eta kantitateari. Irizpidea edozein delarik ere, baldintza-orrian zehaztu behar da.

## 3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

### 9. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda<sup>2</sup>** behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurkeztu behar dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

<sup>2</sup> Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua ikusi.

Eskuragarri: <http://www.ihobe.eus/> > Jarduera eremuak > Erosketa Publiko Berdea